



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko ekainaren 8an

63 ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A :

Galderak:

- Galdera, 35 orduko lanaldiaren ezarpena laguntzeko Foru Legearen ondorioz sortu diren lanpostuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Hizkuntz Eskolako plazetarako eskariari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, “Berariazko prebentzioko eta koordinazioko jarduerak (P.F.D.)” izeneko 17820-4 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, “35 orduko lanaldia ezartzeko dotazioa” izeneko 01900-9 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, “Erretiro aurreratuagatik kalte-ordaina. 259/1988 Foru Dekretua” izeneko 02550-5 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, “Kalte-ordainak erretiro aurreratuagatik, 259/1988 Foru Dekretua” izeneko 02550-5 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –342/2000 ebazpenaz onetsitakoari– buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, “Eraikinaren berregituraketa” izeneko 26850-5 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, “Material informatikoa” izeneko 26870-0 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, “Ekipo informatikoak” izeneko 27170-0 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, “Ekipo informatikoak” izeneko 27410-6 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, “Foru Komunitatearen intereseko sarea” izeneko 96018-2 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, “Interes Orokorreko Sarea: autobiak-errepideak bikoiztea” izeneko 96028-0 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, “Herrietako saihezbideak” izeneko 96025-5 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).

- Galdera, “Epaiaik betearaztea” izeneko 02470-3 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –484/2000 ebazpenaz onetsitakoari– buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, “Epaiaik betearaztea” izeneko 02470-3 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –340/2000 ebazpenaz onetsitakoari– buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, “Epaiaik betearaztea” izeneko 02470-3 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –341/2000 ebazpenaz onetsitakoari– buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, hizkuntza politika berrikusteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, eskola kontseiluak ezagutarazteko kanpainari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Cintruénigoko kultura-azpiegiturei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).

I SAILA:**Parlamentuko Jarduera:**

- 2001eko apirilean egindako bilerak (23. or.).
- Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean 2001eko apirilean sartu diren dokumentuen zerrenda (26. or.).

F saila:
GALDERAK

35 orduko lanaldiaren ezarpena laguntzeko Foru Legearen ondorioz sortu diren lanpostuei buruzko galdera**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak 35 orduko lanaldiaren ezarpena laguntzeko Foru Legearen ondorioz sortu diren lanpostuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko urriaren 16ko 84. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andreari idatziz erantzuteko galdera egin dio lanaldia 35 ordukoa izan dadin laguntzeko lan denbora banatzeko neurri publikoak ezartzeari buruzko martxoaren 16ko 6/1999 Foru Legeko lau gairi buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak haietako lehenbiziko biei emaniko erantzuna, bere eskumeneko gaiak baitira:

1. Zenbat eta zein lanpostu sortu dira aipatu legeko hirugarren artikuluan jasotako neurrien babesean?

Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako administrazio publikoetan ordezkariek dauzkaten sindikatuek, martxoaren 16ko 6/1999 Foru Legeko 3. artikuluan ezarritakoaren babesean, 370 lanpostu sortzea negoziatu eta itundu zuten.

Sortutako lanpostu horiek ondoko foru dekretuetan daude zehaztuta:

A) Maiatzaren 22ko 193/2000, ekainaren 16ko 73. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua.

B) Osasun sektoreko lanpostuei dagokienez, erantzun honen eranskina da urriaren 23ko 339/2000 Foru Dekretuaren fotokopia; foru dekretu hori urriaren 23ko Kontseilu Gobernuan onetsi zen, baina oraindik ere ez da Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu.

2. Zein enplegu eskaintza publikotan bete da lege horretako hirugarren artikulua?

Nafarroako Gobernuak, hemendik gutxira, behar den foru dekretuaren bitartez, aurreko erantzunean aipaturiko lanpostuen lan eskaintza publiko onetsiko du.

Hori gutzia jakinarazi dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko urriaren 24an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurra Induráin

Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna

Foru parlamentari José M^a Aierdi jaunak galdera bat egin du, idatziz erantzun diezaioten, 35 orduko lanaldiaren ezarpenari eta enpresa publikoetako lan orduen banaketari buruz. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilari Francisco Iribarren jaunaren erantzuna:

1999ko abenduaren 27an, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak sozietate publiko guztietako lehendakariari gutun bana bidali zien, erantzun honi erantsi diogun bera, "hurrengo hitzarmen kolektiboa dela-eta, enpresaren lan-egutegia malgutzeko neurriak edo bestelakoak azter ditzaten, lanaldiaren murrizketa benetan bete ahal izateko, betiere, murrizketa horrek lehiakortasunaren gale-

rarik ekartzen ez badu, ez eta produktuen edo zerbitzuen kostuen igoerarik ere."

Enpresa horien ekintzei dagokienez, hona hemen gaur arte jasotako informazioa:

"Instituto para la Calidad Agroalimentaria de Navarra", ICAN: 2000. urtearen hasieran sortu zen, eta 1730eko ordu kopurua finkatu zuen urtean. Urtean zehar zenbateko hori 1660,5 ordura jeitsi da, 69,5 orduko murrizketa, alegia.

"Navarra de Servicios, S.A.", NASERSA: 2000rako, 1660,5 lanorduko kopurua finkatu da. Beraz, 69,5 orduko murrizketa egin da 1999ko 1730 orduko kopuruarekiko.

"Gestión Ambiental Viveros y Repoblaciones de Navarra, S.A.": aurtengo apirilean, urtean benetan betetzen diren orduen kopurua berrantolatatu zuen, eta 1592 ordutan finkatu, 1999ko urtarilaren 1etik atzera eraginik izanik.

"Navarra de Suelo Residencial, S.A.", NASURSA: Bulego eta Langelen Hitzarmenaren arabera, gehienez ere, 1774 ordu egiten ahal dituzte urtean. Dena den, 2000ko egutegian, aurreikusitako kopurua 1683 ordukoa da, hots, 91 orduko murrizketa urtean hitzarmenarekiko. 2001. urtean, ordu kopurua 1641 ordura gutxiagotuko da, 133 orduko murrizketa hitzarmenarekiko, alegia. Azkenik, 2002. urtean erabateko egokitzapena lortuko da.

"Centros Tecnológicos de Navarra, S.A.", CETENASA: egun, aztertzen ari dira lan-egutegia nola antolatu, eta berrantolaketa horren ondorioak lehiakortasunean, merkatuari begira.

"Gestión de Deudas Sociedad Anónima", GEDESA: eguneko lanaldiaren berrantolamendua egitearen ondorioz, 2000. urtean, 51 ordu murriztu dira urtean, hau da, egin beharreko murrizketaren % 50. 2001eko egutegiari dagokionez, osotara, 1592 lanorduko kopurua aurreikusi da.

"Viviendas de Navarra, S.A.", VINSA: lanordu kopurua murrizten ari da, piskanaka 35 orduko lanaldiari egokitzeko. 2000. urtean, % 40,7ko egokitzapena lortu da; eta 2001erako, % 80koa lortzea espero da; 2002rako, aldiz, % 100era iritsi nahi da.

"Riegos de Navarra, S.A.": 2000. urtean zehar, langileen lanordu kopurua murriztu dute 1669,2tik 1592 ordutara.

"Sociedad de Desarrollo de Navarra", SODENA: aurreko otsailaren 11tik aitzina, urteko lanaldia egiazki bete beharreko 1592 ordutan finkatu zuen.

"Sal Doméstica, Sociedad Anónima", SALDOSA: 2000. urtean, 56 ordu gutxitu dizkiote urteko lanaldiari, orain 1744 ordukoa izanik.

"Potasas de Subiza, S.A.", POSUSA: 2000. urtean, 32 ordu gutxitu dizkiote urteko lanaldiari, orain 1744 ordukoa izanik.

"Trabajos Catastrales, S.A.", TRACASA: langileekin negoziatu ondoren, erabaki da lanaldia ez aldatzea, aldaketa horrek bultzatuko bailuke lehiakortasunaren galera Nafarroako Foru Komunitate-tik kanpoko arlo bereko enpresekiko. Enpresa horiek bere hartzen duten bulego teknikoaren hitzarmenaren arabera, asteko lanaldia 40 ordukoa da.

"Obras Públicas y Telecomunicaciones de Navarra S.A.", OPNATEL: lanaldia murrizteko, "udako lanaldi murriztua" luzatu du ekainaren 1etik irailaren 30era bitarte.

Enpresa batzuk ez dira oraindik hasi murrizketa egiten. Hona hemen enpresak eta arrazoiak: "ONENA, Bolsas de papel, S.A.", enpresa publikoa bada ere, bitarte baterako besterik ez da izanen. Gainera, bultzada berria eman nahi zaio une honetan; "Agencia Navarra de Innovación", dituen ezaugarri bereziengatik, eta horretaz gain, langile gutxi dituelako; "Instituto Técnico y de Gestión Ganadero, S.A." ere ez.

"Navarra de Financiación y Control, S.A." (NAFINCO) eta "Sociedad de Desarrollo Exterior de Navarra, S.A." (SODEXNA) enpresek ez dute langile nahikorik.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2000ko azaroaren 25ean

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

(Oharra: aipatutako gutuna foru parlamentarien eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

Hizkuntz Eskolako plazetarako eskariari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Hizkuntz Eskolako plazetarako eskariari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko urriaren 23ko 85. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera batzuk egin ditu Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialeko plazetarako eskariari buruz, idatziz erantzun diezaioten. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

1.- Hizkuntza Eskola Ofizialetako aurretiko izen emateen datuek nahasten ahal gaituzte, Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordeari behin baino gehiagotan azaldu zaizkion arrazoiengatik. Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialean matrikulazioak egin ondoren, tokia dago irakasten diren hizkuntza guztietan, eta azaroan matrikulazioetarako epe berezia irekiko da, izena aldeztu aurretik eman behar izan gabe.

2.- Iruñeko Hizkuntza Eskolan berriki irakasten hasi diren hizkuntzei dagokienez (japoniera, errusiera, arabiera eta portugesa), honako eskabide hauek jaso dira 2000-2001 ikasturterako:

Hizkuntza	Maila	Matrikulak	Erreserbak
Arabiera	I	8	–
	I	15	15
	II	12	–
Errusiera	I	15	1
	I	15	1
Japoniera	I	6	–
	I	15	–
	II	11	–
Portugesa	I	15	12

Kopuru horiek ikusirik, ez du ematen beharrezkoa denik Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialean hizkuntza horietarako departamenturik sortzea, eskaintza arruntean sartzea, alegia.

Hizkuntza berrien modulu horiek, ikasle helduendako, horiek baitira horrelako hizkuntzak eskatzen dituztenak, abantaila dute eskola arruntan aldean, modularrak direlako, hau da, ikastarokak 80 edo 90 ordukoak dira osotara, denbora aldetik trinkoagoak eta malguagoak (2 edo 3 egun astean). Hizkuntza horien irakaskuntza, urritik ekainera, eguneko ordu beteko ordutegiarekin eskainiz gero, eskaera oso bestelakoa izango litzateke.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroko Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraikiz.

Iruñean, 2000ko azaroaren 10ean

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

“Berariazko prebentzioko eta koordinazioko jarduerak (P.F.D.)” izeneko 17820-4 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak “Berariazko prebentzioko eta koordinazioko jarduerak (P.F.D.)” izeneko 17820-4 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 26ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak galdera egin zuen, irailaren 14an, hainbat kontusailetan Ekonomia eta Europako Aferen zuzendari nagusiaren maiatzaren 15eko 267/2000 Ebazpenaren bitartez Nafarroako Gobernuak onetsitako aurrekontu aldaketei buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

Abenduaren 11ko 36/1995 Legearen bitartez konfiskatutako ondasunen fondoa sortu zen. Narkotrafiko eta haren gaineko delituetakoz prozesuetan epai irmoen bidez atzemandako ondasun, gauza eta tresnek osatzen dute fondo hori. Ondasun horiek erabiliko dira delitu horien prebentzio, ikerketa, jazarpen eta errepresio jarduerak aragotu, toxikomaniei aurre egin, drogaren menpekoei lagundu eta haien gizarteratze eta laneratze bideratu, eta nazio mailako arlo horretako lankidetzak sustatzeko. Honako hauek izanen dira fondoko zenbatekoen onuradunak: autonomi erkidegoak, toki korporazioak, gobernuz kanpoko erakundeak edo irabazi asmorik gabeko entitate pribatuak, Estatuko segurtasun indarrak edo taldeak, Aduanak Zaintzeko Zerbitzua, legez kanpoko droga-trafikoaren prebentzio eta errepresiorako fiskaltza berezia, Drogei buruzko plan nazionalerako Gobernuaren Ordezkaritza, Estatuko administrazio orokorreko bestelako erakunde edo entitate publikoak eta arlo horretan eskumenak dituzten nazioarteko erakundeak.

Nafarroak, onuraduna izan daitekeenez, Drogei buruzko plan nazionalerako Gobernuaren Ordezkaritzari bidaltzen dio, urtero, lehen hiruhilabetean, fondo horiekin egiteko jardueren proposamena. 1999 urtean, esaterako, programa honi ematea eskatu zuen: “Droga-kontsumoaren inguru

ezagutzea gazteen aisiarako tokietan: prebentzioko arrastoak.” 3.600.000 pezetako dirulaguntza eskatu zuen programa hori egiteko.

Hauek ziren programaren helburuak:

- Droga-kontsumoaren ezaugarriak ezagutzea gure komunitateko gazteen aisiarako tokietan.
- Droga-erabileraren inguruabarrak antzeman, aztertu eta zerrendatzea.
- Datuak biltzea, aurreko oharretako informazioa egiaztatzeko edo zalantzan jartzeko adierazle izan daitezen.
- Substantzien ezaugarriak ezagutzea.
- Substantzien erabilera-ereduak ezagutzea.

Metodologia kualitatiboa erabili zen, parte hartzeko behaketa tekniken, eztabaida taldeen eta/edo elkarrizketa sakonen bidez.

Jarduerak honako hauek izan ziren: 4 behaketa, asteburuetan, Foru Komunitateko gazteen aisialdirako lekuetan (25 baino gehiago), eztabaida taldea sortu eta/edo elkarrizketa sakonak egitea legez kanpoko drogen kontsumoarekin loturiko pertsonen.

- Talde-bilerak begiraleekin
- Txostena eta proposamena prestatzea
- Proposamenak aurkeztea drogomenpekotasunari buruzko udal planetako prebentzio-teknika-ri

Drogei buruzko plan nazionalerako Gobernuaren Ordezkaritzak iazko urtearen erdialdean bidali zuen narkotrafiko eta haren gaineko delituetakoz prozesuetan konfiskatutako ondasunen fondoko esleipenak koordinatzeko mahaiaren erabakia, Nafarroari dagokion dirulaguntzaren gainekoa, eta 1999rako 3.600.000 pezetakoa dena.

Ondoren, Barne Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko hitzarmena sinatu zen 1999ko urrian. Haren bidez, emandako dirulaguntzaren gainean bi aldeek duten konpromisoa zehaztu zen.

Hitzarmena sinatutakoan, behar ziren izapidaketa administratiboak hasi ziren diru transferentziak jasotzeko.

Banco de Españako kontabilitate-idazpena, Nafarroako Gobernuari egin beharreko transferen-

tziari dagokionez, 1999ko azaroaren 17an egin zen, eta dirua eskuragarri egon zen 15 egun geroago, gutxi gorabehera.

Beraz, ikus daitekeenez, 1999ko abendua da diru hori kudeatzeko benetako epea.

Horregatik eskatu zitzaion Ekonomia eta Ogasun Departamentuari 3.600.000 pezeta 2000ko ekitaldira aldatzeko.

Barne Ministerioarekin hitzartutako konpromisoa betetzeko, programa gauzatu zen fondo berekiekin, 1999ko ekitaldirako droga-menpekotasunei buruzko foru planaren zuzendaritza teknikoari esleitutakoekin, alegia.

Horrenbestez, fondotik transferitutako 3.600.000 pezeta horiek prebentzio-jardueretako

gastuen 2000ko ekitaldira pasatu dira. Kontuan hartu behar da fondo kudeatzeko prozesua antzekoa dela urtetik urtera eta ezin dela bestela izan. 2000. urterako, Nafarroako 8.000.000 pezeta egokitu zaizkio, hezkuntza arloan programa bat ebaluatzeko. Dirua oraingoz transferitu ez denez, programa horretako jarduerak fondo berekiekin ari dira egiten (1999ko 3.600.000 pezeta horiek barne). 2001eko ekitaldian, prebentzio-lerroan 8.000.000 pezeta gehituko dira prozedura beraren bidez.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko urriaren 19an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

“35 orduko lanaldia ezartzeko dotazioa” izeneko 01900-9 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak “35 orduko lanaldia ezartzeko dotazioa” izeneko 01900-9 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 26ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera batzuk egin ditu Ekonomia eta Europako Aferen zuzendari nagusiaren maiatzaren 19ko 285/2000 Ebazpenaren bitartez Nafarroako Gobernuak onetsitako aurrekontu-aldaketari buruz. Hauexek dira galderak hitzez hitz: Zein arrazoi izan dira aipatu ebazpena onetsiz 197.120.270 pezetako aurrekontu-gehikuntza egiteko “35 orduko lanaldia ezartzeko zuzkidura” izeneko 01900-9 kontusailean? Zertan erabili du edo erabiliko du Departamentuak aurrekontu-gehikun-

tza hori? Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1999ko martxoaren 16an Nafarroako Parlamentuak onetsi zuen 6/1999 Foru Legea, lanaldia 35 ordukoa izan dadin laguntzeko eta lan denbora gutxitu eta berrantolatzeke neurri publikoak ezartzeari buruzkoa. Lege hori 1999ko 37. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 1999ko martxoaren 26an.

1, 2 eta 3. artikuluetan ondokoa ezarri zen:

“1. artikulua._Foru lege honen xedea da neurri publikoak ezartzea lanaldia berrantolatu eta murrizteko eta hogeita hamabost orduko lanaldia progresiboki ezartzeko Foru Komunitateko Administrazioan, Nafarroako toki entitateetan eta Foru Komunitateko produkzio-sektore ezberdinetako enpresetan”.

2. artikulua._Foru lege honen ondorioetarako, ondoko kontzeptuak honela ulertu beharko dira:

1. Lanaldiaren berrantolaketa:

a) Funtsezko aldaketak eguneko, asteko, hileko edo urteko lanaldiaren ordu banaketan.

b) Lana txandaka ezarri eta berrantolatu.

c) Ordutegi zatitua ordutegi jarraitua bihurtu, edo alderantziz.

d) Errendimentuagatiko ordainketa sistemak ezarri, lan denbora kentzen dutenak.

e) Beste edozein, urteko lanaldiari eutsita ere, funtsean, lanaldi horren banaketa ezberdina badakar.

2. Lan denbora gutxitzea: urtean zehar osotara lan egin behar diren orduak gutxitzea, beti ere ondoko arrazoiren bategatik bada:

a) Lanaldiaren murrizte zuzena.

b) Jai egun eta oporren gehitzea.

c) Lege bidez edo hitzarmenen bidez ezarritako baimenengatiko denboraren gehitzea.

d) Lanaldiaren beste edozein murrizte, horrekin kontratazio berriak egiten badira.

3. artikulua. Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen 2000. urterako eta hurrengo urteetarako lan baldintzak sindikatueta ordezkariekin negoziatzerakoan, Nafarroako Gobernuak lanaldia berrantolatu eta murrizteko behar diren neurriak aurkeztuko ditu negoziazio mahai orokorrean, hartan azter daitezten; neurri horiek 35 orduko lan astea ezartzea bideratuko dute, lanaldi orokorra egiten dutenentzat, eta hein bereko lanaldi-murrizketa txandaka edo txanda berezitan lan egiten dutenentzat.

Asteko 35 orduen urteko zenbaketak 1.592 ordu egiten du, guztira.

Neurri horiek aplikatzeak lanpostu berrien beharra ekarriko du, behar horiek betetzea ezinbestekoa bada zerbitzuaren maila mantentzeko. Horren berri eman beharko da kasuan kasuko enplegu eskaintza publikoan sartzeko.

Bai lanaldiaren murriztea zehazteko formulak, bai zerbitzua bermatzeko behar den enplegu egonkorren sorrera zehazteko formulak, langileen legezko ordezkariekin negoziatu beharko dira.”

Neurri horiek zirela-eta Foru Komunitateko Administrazioan sor zitezkeen gastuei aurre egiteko, 2000ko ekitaldiko Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko abenduaren 30eko 18/1999 Foru Legean, 164. Nafarroako Aldizkari Ofizialean abenduaren 31n argitaratu zen horretan, eta Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiaren kontusailen barnean, “35 orduko lanaldia ezartzeko zuzkidura” izeneko kontusaila sortu zen, milioi bat pezetako hasierako zuzkidura zuena eta handitzen ahal zena, aurrekontuen proiektua egin zenean ezin zelako aurreikusi Foru Komunitateko Administrazioan 35 orduko lanaldia ezartzearen benetako kostua, ordezkariekiko negoziatioak bukatu gabe zeudelako.

2000ko apirilaren 4an sinatu zen “Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta sindikatuen arteko akordioa, 2000-2001 urteetarako Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuan ari diren langileen lan baldintzei buruzkoa.”

Akordio horren 3. puntuan irizpideak finkatu ziren 35 orduko lanaldiari buruzko martxoaren 16ko 6/1999 eta apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legeak aplikatzeko. 2000 urtean zehar hurrengo departamentuei atxikiriko 370 lanpostu sortzeko konpromisoa agertzen da besteak beste:

- Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua: 260 lanpostu

- Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua: 45 lanpostu

- Barne Zuzendaritza Nagusia: 65 lanpostu

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoan hainbat lanpostu sortzeari buruzko maiatzaren 22ko 193/2000 Foru Dekretuaren bidez eta 35 orduko lanaldiei buruzko foru legeak aplikatzearen ondorioz, 110 lanpostu sortu ziren, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren eta Barne Zuzendaritza Nagusiaren menpekoak eta indarra duten gastuetako aurrekontuen 01900-9 lerroaren kargura finantzatzekoak.

Foru dekretu horretan xedatutakoa betetzeko, Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak eskatu zion Ekonomia eta Ogasun Departamentuari 01900-9 lerroari 197.120.720 pezeta gehitzeko, hori baitzen ekitaldiaren gainerako aldiaren lanpostu horien kostua finantzatzeko aurreikusitako zenbatekoa. Zenbateko hori Ekonomia eta Europako Aferen zuzendari nagusiak baimendu zuen maiatzaren 19ko 285/2000 Ebazpenaren bidez.

Kontusail horretako kreditu-gehikuntza egin ondoren, Funtzio Publikoko zuzendari nagusiaren 2000ko abuztuaren 7ko eta 2000ko irailaren 4ko Ebazpenen bitartez, behar ziren aldaketak egin ziren aurrekontuan, 01900-9 lerroaren kargura, 110 lanpostu berri horiek atxiki direneko unitate organikoaren aurrekontuko I. kapituluko lerroak dagozkien kantitateez hornitzeko.

Hori guztia jakinarazi dizut Biltzarreko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatutakoari jarraituz.

Iruñean, 2000ko urriaren 24an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

“Erretiro aurreratuetatik kalte-ordaina. 259/1988 Foru Dekretua” izeneko 02550-5 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak “Erretiro aurreratuetatik kalte-ordaina. 259/1988 Foru Dekretua” izeneko 02550-5 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 26ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera batzuk egin ditu Ekonomia eta Europako Aferen zuzendari nagusiaren uztailaren 20ko 474/2000 Ebazpenaren bitartez Nafarroako Gobernuak onetsitako aurrekontu-aldaketari buruz. Hauexek dira galderak hitzez hitz: Zein arrazoi izan dira aipatu ebazpena onetsiz 6.270.280 pezetako aurrekontu-gehikuntza egiteko “Jubilazio aurreratuetatik kalteordainak, 259/1988 Foru Dekretua” izeneko 02550-5 kontusailailean? Zertan erabili du edo erabiliko du Departamentuak aurrekontu-gehikuntza hori? Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1988ko azaroaren 10eko 259/1988 Foru Dekretuaren bidez, 1988ko 140. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen azaroaren 18an, Gaixotasunarengatik jubilatzeko arauari buruzko 1970eko apirilaren 17ko Erabakiaren hainbat atal aldatu ziren. Parlamentuko galderari dagokionez, zehazki, honela gelditu zen Erabaki horretako 2. idatz-zatiaren berridazketa:

“Edozein momentutan, Administrazioak ofizioz edo interesatuak eskaturik, aurreko puntuan araututako baja egoeran dagoen langileak murrizketa anatomiko edo funtzional larriak ageri baditu, murrizketa horiek objektiboki finkatzeko modukoak eta behin betikotzat jotakoak badira, eta gutxitu edo are ezeztatu egiten badiote lanerako gaitasuna, zerbitzuko bajan deklaratu ahalko da eta lanpostua hutsik, Ikuskapen medikuaren azterketa gaitzitu ondoren. Langileak honako pentsio hauek jasotzen ahalko ditu...”

Halaber, beste lerrokada bat erantsi zen 2. idatz-zatiaren bukaeran. Hona hemen testua:

“Gabezia-epe hori kalkulatzeko, bajaren gehieneko iraupena hartuko da aintzat, kontuan hartu gabe funtzionarioak epe hori agortu duen edo ez.”

259/1988 Foru Dekretuko xedapen gehigarriek ondokoa ezarri zuten:

“1.- Lanean aritzea galarazten dion gaixotasunen batengatik funtzionarioak baja hartu behar badu, eta arrazoi horrengatik jubilatu bada bajaran bi urte horiek igaro aurretik, jubilazio-pentsioaz gainera, hilabetero, lanerako bajak iraun bitarteko epeetan kobratu behar duena pagatuko zaio, baldin eta gaixotasunarengatik jubilazioaren pentsioa txikiagoa bada bajagatik kobratzen dena baino.

2.- Gaixotasuna dela-eta, funtzionarioa jubilatu denetik hemezortzi hilabete igaro arte, lanerako baja hasten denetik aitzina, dirulaguntza izanen da gaixotasunarengatik jubilazioaren pentsioaren eta jarduneko ordainsarien % 100aren arteko aldea.

3.- Gaixotasuna dela-eta funtzionarioa jubilatu bada hemeretzigarren hilabetetik hogeita laugarrenera, biak barne, lanerako baja hasten denetik aitzina, dirulaguntza izanen da gaixotasunarengatik jubilazioaren pentsioaren eta jarduneko ordainsarien % 75aren arteko aldea.”

259/1988 Foru Dekretu horrek indarra hartu zuenetik, Nafarroako Gobernuak aurrekontu-lerro bat sartu du, ekitaldi bakoitzeko aurrekontuei buruzko Foru Lege proiektuan, Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiaren barnean, hori baita Foru Diputazioaren Montepioko klase pasiboak kudeatzeko organo eskuduna, xedapen gehigarrietan aurreikusitako dirulaguntzari aurre egiteko, funtzionarioak bajaran egonik ere jubilatu direnean, bajaren gehieneko epe hori agortu gabe.

Aurrekontuei buruzko Foru Lege proiektua prestatzean ezin da zehaztu kontzeptu horrengatik ekitaldian ordaindu beharrekoa, ezintasunarengatik zenbat pertsona jubilatu diren, behar baino lehenago, jakiterik ez baitago. Horrengatik, aurrekontuei buruzko foru legeetan milioi bat pezetaz hornitu ohi da kontusail hori, handitu badaiteke ere, aipatu dirulaguntzak ordaintzeko beharra sortzen duten kasuak agertzen diren neurrian.

Horrela bada, Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak Ekonomia eta Ogasun Departamentuari eskatu dio kontusail horri behar den zenbatekoa gehitzeko. Frogagiriak, kontu-hartzaileak behar bezala ikuskatuak, aurkeztu ditu.

Ekonomia eta Europako Aferen zuzendari nagusiak uztailaren 20an eman 474/2000 Ebazpenaren bidez, 6.270.280 pezetako aldaketa baimendu zen aurrekontuan, Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiaren Langileri Zerbitzuak eskatutakoa, ekitaldi honetan, 2000ko apirilaren 1etik 2000ko ekainaren 1a bitarte, biak barne,

ezintasuna dela-eta jubilazio aurreratua onartu duten 8 funtzionarioei ordaindu behar zaien dirulaguntza finantzatzeko, 259/1988 Foru Dekretu horretan xedatutakoaren babesean.

Hori guztia jakinarazi dizut Biltzarreko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraikiz.

Iruñean, 2000ko urriaren 24an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

“Kalte-ordainak erretiro aurreratuagatik, 259/1988 Foru Dekretua” izeneko 02550-5 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –342/2000 ebazpenaz onetsitakoari– buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak “Kalte-ordainak erretiro aurreratuagatik, 259/1988 Foru Dekretua” izeneko 02550-5 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –342/2000 ebazpenaz onetsitakoari– buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 26ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera batzuk egin ditu Ekonomia eta Europako Aferen zuzendari nagusiaren ekainaren 5eko 342/2000 Ebazpenaren bitartez Nafarroako Gobernuak onetsitako aurrekontu-aldaketari buruz. Hauexek dira galderak hitzez hitz: Zein arrazoi izan dira aipatu ebazpena onetsiz 1.663.887 pezetako aurrekontu-gehikuntza egiteko “Jubilazio aurreratuarengatik kalteordainak, 259/1988 Foru Dekretua” izeneko 02550-5 kontusaila? Zertan erabili du edo erabiliko du Departamentuak aurrekontu-gehikuntza hori? Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1988ko azaroaren 10eko 259/1988 Foru Dekretuaren bidez, 1988ko 140. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen azaroaren 18an, Gaixotasunarengatik jubilatzeko arauari buruzko 1970eko apirilaren 17ko Erabakiaren hainbat atal aldatu ziren. Parlamentuko galderari dagokionez, zehazki, honela gelditu zen Erabaki horretako 2. idatz-zatiaren berridazketa:

“Edozein momentutan, Administrazioak ofizioz edo interesatuak eskaturik, aurreko puntuan araututako baja egoeran dagoen langileak murrizketa anatomiko edo funtzional larriak ageri baditu, murrizketa horiek objektiboki finkatzeko modukoak eta behin betikotzat jotakoak badira, eta gutxitu edo are ezeztatu egiten badiote lanerako gaitasuna, zerbitzuko bajaran deklaritzen ahalko da eta lanpostua hutsik, Ikuskapen medikuaren azterketa

gainditu ondoren. Langileak honako pentsio hauek jasotzen ahalko ditu...”

Halaber, beste lerrokada bat erantsi zen 2. idatz-zatiaren bukaeran. Hona hemen testua:

“Gabezia-epe hori kalkulatzeko, bajaren gehieneko iraupena hartuko da aintzat, kontuan hartu gabe funtzionarioak epe hori agortu duen edo ez.”

259/1988 Foru Dekretuko xedapen gehigarriek ondokoa ezarri zuten:

“1.- Lanean aritzea galarazten dion gaixotasunen batengatik funtzionarioak baja hartu behar badu, eta arrazoi horrengatik jubilatzen bada bajako bi urte horiek igaro aurretik, jubilazio-pentsioaz gainera, hilabetero, lanerako bajak iraun bitarteko epeetan kobratu beharko zuena pagatuko zaio, baldin eta gaixotasunarengatik jubilazioaren pentsioa txikiagoa bada bajagatik kobratzen dena baino.

2.- Gaixotasuna dela-eta, funtzionarioa jubilatzen denetik hemezortzi hilabete igaro arte, lanerako baja hasten denetik aitzina, dirulaguntza izanen da gaixotasunarengatik jubilazioaren pentsioaren eta jarduneko ordainsarien % 100aren arteko aldea.

3.- Gaixotasuna dela-eta funtzionarioa jubilatu bada, hemeretzigarren hilabetetik hogeita laugarrenera, biak barne, lanerako baja hasten denetik aitzina, dirulaguntza izanen da gaixotasunarengatik jubilazioaren pentsioaren eta jarduneko ordainsarien % 75aren arteko aldea.”

259/1988 Foru Dekretu horrek indarra hartu zuenetik, Nafarroako Gobernuak aurrekontu-lerro bat sartu du, ekitaldi bakoitzeko aurrekontuei buruzko Foru Lege proiektuan, Funtzio Publikoko zuzendaritza nagusiaren barnean, hori baita Foru Diputazioaren Montepioko klase pasiboak kudeatzeko organo eskuduna, xedapen gehigarrietan aurreikusitako dirulaguntzari aurre egiteko, funtzionarioak bajaran egonik ere jubilatzen direnean, bajaren gehieneko epe hori agortu gabe.

Aurrekontuei buruzko Foru Lege proiektua prestatzean ezin da zehaztu kontzeptu horrengatik ekitaldian ordaindu beharrekoa, ezintasunarengatik zenbat pertsona jubilatuko diren, behar baino lehenago, jakiterik ez baitago. Horrengatik, Aurrekontuei buruzko foru legeetan milioi bat

pezetaz hornitu ohi da kontusail hori, handitu badaiteke ere, aipatu dirulaguntzak ordaintzeko beharra sortzen duten kasuak agertzen diren neurrian.

Horrela bada, Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak Ekonomia eta Ogasun Departamentuari eskatu dio kontusail horri behar den zenbatekoa gehitzeko. Frogagiriak, kontu-hartzaileak behar bezala ikuskatuak, aurkeztu ditu.

Ekonomia eta Europako Aferen zuzendari nagusiak ekainaren 5ean eman 342/2000 Ebazpenaren bidez, 1.663.887 pezetako aldaketa baimendu zen aurrekontuan, Funtzio Publikoko

Zuzendaritza Nagusiaren Langileri zerbitzuak eskatutakoa, ekitaldi honetan, 2000ko otsailaren 1etik 2000ko martxoaren 1a bitarte, biak barne, ezintasuna dela-eta jubilazio aurreratua onartu duten 3 funtzionarioei ordaindu behar zaien dirulaguntza finantzatzeko, 259/1988 Foru Dekretu horretan xedatutakoaren babesean.

Hori guztia jakinarazi dizut Biltzarreko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraikiz.

Iruñean, 2000ko urriaren 24an

Lehendakaria, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

“Eraikinaren berregituraketa” izeneko 26850-5 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak “Eraikinaren berregituraketa” izeneko 26850-5 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 26ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak informazioa eskatu du Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren ekainaren 28ko 112/2000 Foru Aginduaren bitartez onetsitako “Eraikina birmoldatzea” izeneko 26850-5 kontusaila handitzea aurrekontu-aldaketari buruz. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

1.– Zein arrazoi izan dira aipatu foru agindua onetsiz 1.000.000 pezetako aurrekontu-gehikuntza egiteko “Eraikina birmoldatzea” izeneko 26850-5 kontusailean?

Aurrekontuko kontusail hori handitu da Departamentuak Iruñeko San Ignazio etorbideko 3 zenbakian duen eraikineko beheko, lehenengo eta bigarren solairuetako komunak egokitzeko lanak pagatzeko.

2.- Zertan erabili du edo erabiliko du Departamentuak aurrekontu-gehikuntza hori?

Diru hori erabiliko da egiten ari diren lanak ordaintzeko.

Hori guztia jakinarazi dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan agindutakoa betetzeko.

Iruñean, 2000ko urriaren 10ean

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

“Material informatikoa” izeneko 26870-0 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak “Material informatikoa” izeneko 26870-0 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 26ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak informazioa eskatu du Ekonomia eta Europako Aferen zuzendari nagusiaren ekainaren 7ko 347/2000 Ebazpenaren bitartez onetsitako “Material informatikoa” izeneko 26870-0 kontusaila handitzeko aurrekontu-aldaketari buruz. Hona

hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1.– Zein arrazoi izan dira aipatu ebazpena onetsiz 1.200.000 pezetako aurrekontu-gehikuntza egiteko “Material informatikoa” izeneko 26870-0 kontusailean?

Aurrekontua gehitu da Departamentuko hainbat zerbitzutako ekipamendu informatikoa hobetu eta osatu behar zelako.

2.– Zertan erabili du edo erabiliko du Departamentuak aurrekontu-gehikuntza hori?

Aipatu material eta ekipo informatikoa erosteko erabili da dirua.

Hori guztia jakinarazi dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan agindutakoa betetzeko.

Iruñean, 2000ko urriaren 10ean

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria.
José Ignacio Palacios Zuasti

“Ekipo informatikoak” izeneko 27170-0 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak “Ekipo informatikoak” izeneko 27170-0 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 26ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak informazioa eskatu du Ekonomia eta

Europako Aferen zuzendari nagusiaren ekainaren 7ko 347/2000 Ebazpenaren bitartez onetsitako “Ekipo informatikoak” izeneko 27170-0 kontusaila handitzeko aurrekontu-aldaketari buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1.– Zein arrazoi izan dira aipatu ebazpena onetsiz 150.000 pezetako aurrekontu-gehikuntza egiteko “Ekipo informatikoak” izeneko 27170-0 kontusailean?

Aurrekontua gehitu da departamentuko hainbat zerbitzutako ekipamendu informatikoa hobetu eta osatu behar zelako.

2.– Zertan erabili du edo erabiliko du departamentuak aurrekontu-gehikuntza hori?

Aipatu material eta ekipo informatikoa erosteko erabili da dirua.

Hori guztia jakinarazi dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan agindutakoa bete-

tzeko.

Iruñean, 2000ko urriaren 10ean

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

“Ekipo informatikoak” izeneko 27410-6 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak “Ekipo informatikoak” izeneko 27410-6 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 26ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak informazioa eskatu du Ekonomia eta Europako Aferen zuzendari nagusiaren ekainaren 7ko 347/2000 Ebazpenaren bitartez onetsitako “Ekipo informatikoak” izeneko 27410-6 kontusaila handitzeko aurrekontu-aldaketari buruz. Hona

hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1.– Zein arrazoi izan dira aipatu ebazpena onetsiz 1.600.000 pezetako aurrekontu-gehikuntza egiteko “Ekipo informatikoak” izeneko 27410-6 kontusailen?

Aurrekontua gehitu da departamentuko hainbat zerbitzutako ekipamendu informatikoa hobetu eta osatu behar zelako.

2.– Zertan erabili du edo erabiliko du departamentuak aurrekontu-gehikuntza hori?

Aipatu material eta ekipo informatikoa erosteko erabili da dirua.

Hori guztia jakinarazi dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan agindutakoa betetzeko.

Iruñean, 2000ko urriaren 10ean

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

“Foru Komunitatearen intereseko sarea” izeneko 96018-2 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak “Foru Komunitatearen intereseko sarea” izeneko 96018-2 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 26ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera batzuk egin ditu Ekonomia eta Europako Aferen zuzendari nagusiaren ekainaren 21eko 389/2000 Ebazpenaren bitartez onetsitako “Foru Komunitatearen intereseko sarea” izeneko 96018-2 kontusaila handitzeko aurrekontu-aldaketari buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1.– Zein arrazoi izan dira aipatu ebazpena onetsiz 84.662.794 pezetako aurrekontu-gehikuntza egiteko “Foru Komunitatearen intereseko sarea” izeneko 96018-2 kontusailean?

Obra egiten den bitartean, edo prestatze aldian, obraren aurrekontu nagusiaz gaindiko gastu osagarriak gertatzen dira, baina egin arte ezin aurreikusi daitezkeenez, oso zaila izaten da igarri eta baloratzea egiaztatu aurretik. Horixe da ukitutako lur eta zerbitzuen kasua.

Bestetik, obra batzuen likidazioan hitzartutako kantitateak gainditu egiten dira, eta hori gertatu bitartean aurrekontuak ezin dira bateratu. Gainera, gerta daiteke une horretan aurrekontuan diru nahikorik ez egotea.

Halaber, kontuan hartu behar da prezioen berrikuspena, prezio-indizen aldaketari hertsiki loturik baitago eta haren kontrola departamentu honi ez baitagokio.

Beste aldetik, maiz Desjabetzapenetarako Mahaiaren erabakiak topatzen ditugu, aurreko ekitaldietakoak, batzuetan duela zenbait urtetakoak, eta aurreikusi ezin izaten direnak.

2.– Zertan erabili du edo erabiliko du Departamentuak aurrekontu-gehikuntza hori?

Desjabetzapenak:

- Acedo-Zuñiga
- Ezkaroze-Otsagabia

Ukitutako zerbitzuak:

- Milagroko bidegurutzea

Likidazioak eta prezioen berrikuspena:

- Leitza-Areso
- Artaxo- Artieda

Hori guztia jakinarazi dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoetan agindutakoa betetzeko.

Iruñean, 2000ko urriaren 11n

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

“Interes Orokorreko Sarea: autobideak-errepideak bikoiztea” izeneko 96028-0 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak “Interes Orokorreko Sarea: autobideak-errepideak bikoiztea” izeneko 96028-0 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 26ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera batzuk egin ditu Ekonomia eta Europako Aferen zuzendari nagusiaren ekainaren 21eko 389/2000 Ebazpenaren bitartez onetsitako “Interes orokorreko sarea: autobideak-errepideak bikoiztea” izeneko 96028-0 kontusaila handitzeko aurrekontu-aldaketari buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1.– Zein arrazoi izan dira aipatu ebazpena onetsiz 103.426.093 pezetako aurrekontu-gehikuntza egiteko “Interes orokorreko sarea: autobideak-errepideak bikoiztea” izeneko 96028-0 kontusailan?

Obra egiten den bitartean, edo prestatze aldian, obraren aurrekontu nagusiaz gaindiko

gastu osagarriak gertatzen dira, baina egin arte ezin aurreikusi daitezkeenez, oso zaila izaten da igarri eta baloratzea egiaztatu aurretik. Horixe da ukitutako lur eta zerbitzuen kasua.

Bestetik, obra batzuen likidazioan hitzartutako kantitateak gaintu egiten dira, eta hori gertatu bitartean aurrekontuak ezin dira bateratu. Gainera, gerta daiteke une horretan aurrekontuan diru nahikorik ez egotea.

Halaber, kontuan hartu behar da prezioen berrikuspena, prezio-indizen aldaketari hertsiki loturik baitago eta haren kontrola departamentu honi ez baitagokio.

Beste aldetik, maiz Desjabetzapenatarako Mahaiaren erabakiak topatzen ditugu, aurreko ekitaldietakoak, batzuetan duela zenbait urtetakoak, eta aurreikusi ezin izaten direnak.

2.– Zertan erabili du edo erabiliko du departamentuak aurrekontu-gehikuntza hori?

Zerbitzuak aldatu eta honako desjabetzapen hauek egiteko:

- Altsasu-Etxegarateko errepidearen bikoizketa
- Tuterako saihebidetaren bikoizketa

Hori guztia jakinarazi dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoetan agindutakoa betetzeko.

Iruñean, 2000ko urriaren 11n

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria.
José Ignacio Palacios Zuasti

“Herrietako saihesbideak” izeneko 96025-5 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak “Herrietako saihesbideak” izeneko 96025-5 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 26ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera batzuk egin ditu Ekonomia eta Europako Aferen zuzendari nagusiaren ekainaren 21eko 389/2000 Ebazpenaren bitartez onetsitako “Herrietako saihesbideak” izeneko 96025-5 kontusaila handitzeko aurrekontu-aldaketari buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1.– Zein arrazoi izan dira aipatu ebazpena onetsiz 192.709.894 pezetako aurrekontu-gehi-kuntza egiteko “Herrietako saihesbideak” izeneko 96025-5 kontusailean?

Obra egiten den bitartean, edo prestatze aldiaren obraren aurrekontu nagusiaz gaindiko gastu osagarriak gertatzen dira, baina ordura arte ezin aurreikusi daitezkeenez, oso zaila izaten da

igarri eta baloratzea egiaztatu aurretik. Horixe da ukitutako lur eta zerbitzuen kasua.

Bestetik, obra batzuen likidazioan hitzartutako kantitateak gainditu egiten dira, eta hori gertatu bitartean aurrekontuak ezin dira bateratu. Gainera, gerta daiteke une horretan aurrekontuan diru nahikorik ez egotea.

Halaber, kontuan hartu behar da prezioen berrikuspena, prezio-indizen aldaketari hertsiki loturik baitago eta haren kontrola Departamentu honi ez baitagokio.

Beste aldetik, maiz Desjabetzapenetarako Mahaiaren erabakiak topatzen ditugu, aurreko ekitaldietakoak, batzuetan duela zenbait urtetakoak, eta aurreikusi ezin izaten direnak.

2.– Zertan erabili du edo erabiliko du departamentuak aurrekontu-gehi-kuntza hori?

Desjabetzapenak:

– Lizarrako saihesbideko kolektoreak

Likidazioak eta prezioen berrikuspena:

– Lizarrako saihesbidea

– Arraiozko saihesbidea

Hori guztia jakinarazi dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoetan agindutakoa betetzeko.

Iruñean, 2000ko urriaren 11n

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria.
José Ignacio Palacios Zuasti

“Epaiak betearaztea” izeneko 02470-3 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –484/2000 ebazpenaz onetsitakoari– buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak “Epaiak betearaztea” izeneko 02470-3 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –484/2000 ebazpenaz onetsitakoari– buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 26ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera batzuk egin ditu Ekonomia eta Europako Aferen zuzendari nagusiaren uztailaren 20ko 484/2000 Ebazpenaren bitartez Nafarroako Gobernuak onetsitako aurrekontu-aldaketari buruz. Hauexek dira galderak hitzez hitz: Zein arrazoi izan dira aipatu ebazpena onetsiz 1.982.108 pezetako aurrekontu-gehikuntza egiteko “Epaiak betearaztea” izeneko 02470-3 kontusailaren? Zertan erabili du edo erabiliko du departamentuak aurrekontu-gehikuntza hori? Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

“Epaiak betearaztea” izeneko 04000-1709-1226 kontusaileko 20002 proiektuaren 02470-3 lerroa Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak sortu zuen gastuen lerroen barnean. Izenak adierazi bezala, Nafarroako Foru Komunitateko Admi-

nistrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileek, dagokien jurisdikzioari, I. kapituluaren gainean, aurkeztutako errekurtsoen ondoriozko epaien betearazpena finantzatzea du helburu.

Ezinezkoa denez Administrazioak beren langileei ekitaldi bakoitzean, epaiak betearazteko, ordaindu beharko diona zehatz-mehatz aurreikus-tea, urteroko gastuen hasierako aurrekontuan milioi bat pezeta besterik ez da ezartzen kontusail horretarako, nahiz eta handitzen ahal dela xedatzen den.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuan, Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiko Funtzio Publikoaren Antolamenduko Zerbitzuak kreditua gehitzeko eskatu zuen, ekitaldi honetan, diru gehiago behar delako Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak emandako epaiak betearazteko, Funtzio Publikoko zuzendari nagusiaren 2000ko abuztuaren 1eko Ebazpenen bidez betearazi diren 243/96 eta 1683/96 zenbakietako administrazioarekiko auzi-errekurtsoen gainean. Horri guziari erantzuna emateko, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak 484/2000 Foru Agindua eman zuen uztailaren 20an.

Hori guztia jakinarazi dizut Biltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2000ko azaroaren 15ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

“Epaiak betearaztea” izeneko 02470-3 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –340/2000 ebazpenaz onetsitakoari– buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak “Epaiak betearaztea” izeneko 02470-3 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –340/2000 ebazpenaz onetsitakoari– buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 26ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera batzuk egin ditu Ekonomia eta Europako Aferen zuzendari nagusiaren ekainaren 5eko 340/2000 Ebazpenaren bitartez Nafarroako Gobernuak onetsitako aurrekontu-aldaketari buruz. Hauexek dira galderak hitzez hitz: Zein arrazoi izan dira aipatu ebazpena onetsiz 289.865 pezetako aurrekontu-gehikuntza egiteko “Epaiak betearaztea” izeneko 02470-3 kontusailean? Zertan erabili du edo erabiliko du departamentuak aurrekontu-gehikuntza hori? Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

“Epaiak betearaztea” izeneko 04000-1709-1226 kontusaileko 20002 proiektuaren 02470-3 lerroa Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak sortu zuen gastuen lerroen barnean. Izenak adierazi bezala, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen

zerbitzuko langileek, dagokien jurisdikzioari, I. kapituluaren gainean, aurkeztutako errekurtsoen ondoriozko epaien betearazpena finantzatzea du helburu.

Ezinezkoa denez Administrazioak beren langileei ekitaldi bakoitzean, epaiak betearazteko, ordaindu beharko diena zehatz-mehatz aurreikustea, urteroko gastuen hasierako aurrekontuan milioi bat pezeta besterik ez da ezartzen kontusail horretarako, nahiz eta handitzen ahal dela xedatzen den.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuan, Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiko Funtzio Publikoaren Antolamenduko Zerbitzuak kredituari 289.865 pezeta gehitzeko eskatu zuen, ekitaldi honetan, diru gehiago behar delako honako epai hauek betearazteko: Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak emandakoa, 626/96 zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtsoren gainean, eta Iruñeko Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegiarena, 208/1999 administrazioarekiko auzi-errekurtsu laburtuaren gainean. epai horiek bete dira Funtzio Publikoko zuzendari nagusiaren 2000ko apirilaren 28ko eta 2000ko ekainaren 12 Ebazpenen bidez, hurrenez hurren. Horri guztiari erantzuna emateko, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak 484/2000 Foru Agindua eman zuen uztailaren 20an.

Hori guztia jakinarazi dizut Biltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2000ko azaroaren 15ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

“Epaiak betearaztea” izeneko 02470-3 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –341/2000 ebazpenaz onetsitakoari– buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak “Epaiak betearaztea” izeneko 02470-3 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –341/2000 ebazpenaz onetsitakoari– buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 26ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera batzuk egin ditu Ekonomia eta Europako Aferen zuzendari nagusiaren ekainaren 5eko 341/2000 Ebazpenaren bitartez Nafarroako Gobernuak onetsitako aurrekontu-aldaketari buruz. Hauexek dira galderak hitzez hitz: Zein arrazoi izan dira aipatu ebazpena onetsiz 124.745 pezetako aurrekontu-gehikuntza egiteko “Epaiak betearaztea” izeneko 02470-3 kontusailean? Zertan erabili du edo erabiliko du departamentuak aurrekontu-gehikuntza hori? Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

“Epaiak betearaztea” izeneko 04000-1709-1226 kontusaileko 20002 proiektuaren 02470-3 lerroa Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak sortu zuen gastuen lerroen barnean. Izenak adie-

razi bezala, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileek, dagokien jurisdikzioari, I. kapituluaren gainean, aurkeztutako errekurtsoen ondoriozko epaien betearazpena finantzatzea du helburu.

Ezinezkoa denez Administrazioak beren langileei ekitaldi bakoitzean, epaiak betearazteko, ordaindu beharko diena zehatz-mehatz aurreikus-tea, urteroko gastuen hasierako aurrekontuan milioi bat pezeta besterik ez da ezartzen kontusail horretarako, nahiz eta handitzen ahal dela xedatzen den.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuan, Funtzio Publikoko zuzendaritza nagusiko Lan Harremanetarako Zerbitzuak kredituari 124.745 pezeta gehitzeko eskatu zuen, ekitaldi honetan, diru gehiago behar delako Nafarroako Lan arloko 2. Epaitegiak otsailaren 8an emandako epaia betearazteko, Funtzio Publikoko zuzendari nagusiaren 2000ko martxoaren 13ko Ebazpenaren bidez betearazi den 548/99-2 zenbakiko prozeduraren gainean. Horri guztiari erantzuna emateko, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak 341/2000 Foru Agindua eman zuen ekainaren 5ean.

Hori guztia jakinarazi dizut Biltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2000ko azaroaren 15ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Hizkuntza politika berrikusteari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak hizkuntza politika berrikusteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko urriaren 31ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera bat egin du Nafarroako Gobernuak hizkuntza politikaren berrikuspeneren gainean onetsi duen Ebazpen proposamenari buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

1.- Lehenik eta behin, honakook argitu behar dira: lehenbizi, Parlamentuaren erabakiak ez dira aginduak, eskaerak baizik. Bigarrenik, euskararen irakaskuntza eta irakaskuntza euskaraz Euskararen Legeak eta hura garatzen duten foru dekretuek eta aginduek gobernatzeko dute. Zalantzarik

gabe, galderan aipatutako erabakiaren bidez Nafarroako Gobernua premiatu nahi da euskarazko irakaskuntza arau dezan Foru Komunitateko eremu ez-euskalduneko ikastetxe ez-baimenduetan. Horri doakionez, Hezkuntza eta Kultur Departamentua orain dela urte batzuk hasi zitzaion Nafarroako Ikastolen Federazioari proposatzen, arrakastarik gabe, elkarrizketa irekia mantentzeko, har daitezkeen konponbideak zehaztu ahal izateko. Berriki nik neuk eskaini nien Federazioko ordezkariari berriro elkartzeko aukera.

2.- Ezin dugu alternatibarik aipatu, ikastetxe batek baimendua izateko, derrigorrez bete behar baititu araudi indardunak agintzen dituen instalazio, ekipamendu eta langileei buruzko baldintzak. Bakarrik, eta salbuespen gisa, egoera berezietan, behin-behineko baimenak ematen ahal dira ikastetxearen titularrak eskatu zaizkion baldintzak betetzeko beharrezko izapidaketa egiten duen bitartean.

Hori guztia jakinarazi dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2000ko azaroaren 17an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús María Laguna Peña

Eskola kontseiluak ezagutarazteko kanpainari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak eskola kontseiluak ezagutarazteko kanpainari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko urriaren 31ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera bat egin du eskola kontseiluak ezagutarazteko kanpainari buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako Gobernuaren ustez, une honetan komenigarria da eskola kontseiluak ezagutarazteko kanpaina bat egitea, ikasleen gurasoentzat, haien parte hartzea bultzatzeko

ikastetxeetako gobernu-organo horretan, hori baita seme-alaben heziketan esku hartzeko beste bide bat.

2.- Hezkuntza eta Kultura Departamentuak, Nafarroako Eskola Kontseiluarekin batera, 2000. urtean kanpaina bat egitea erabaki du bai komunikabideetan bai irratietan, eskola-kontseiluetako hauteskundeetan gurasoen parte hartzea sustatzeko. Hurrengo ikasturtetarako, kanpaina komunikabideetan zabaltzeko edo bestelako informazio jarduerak egiteko aukera aztertuko da.

3.- Informazio kanpaina azaroan hasi eta abenduaren 11 arte hedatuko da, urriaren 4ko 362/2000 Foru Aginduan ikastetxeetako hautesbatzordeak eratzeko eta hezkuntza erkidegoko arloen bozketarako aurreikusitako epeekin bat.

Hori guztia jakinarazi dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2000ko azaroaren 17an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús María Laguna Peña

Cintruénigoko kultura-azpiegiturei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Cintruénigoko kultura-azpiegiturei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko urriaren 31ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko azaroaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera batzuk egin ditu Cintruénigoko kultura-azpiegiturei buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

1.- Gobernuak badu Cintruénigoko Kultur Etxearen egoeraren berri. Lehenik eta behin argitu behar da eraikin hori 1983an egin zela, Nafarroako Foru Diputazioak, Udal Administrazioarako Zuzendaritzaren bidez, Europar Batasuneko ekintza-planaren barruan emandako dirulaguntzarekin, eta ez Vianako Printzea Erakundea-Kulturako Zuzendaritza Nagusiak kultur azpiegitura eta eki-

pamenduetarako kontusailetatik ematen dituen dirulaguntzekin.

2.- Hori kontuan harturik, Vianako Printzea Erakundea-Kulturako Zuzendaritza Nagusiak zilegizat jo du Udalaren jarduera.

3.- Vianako Printzea erakundea-Kulturako Zuzendaritza Nagusiaren ustez Cintruénigoko Kultur Etxea izeneko udal instalazioak ez dira nahikorik kultur programazioko egungo beharrei erantzunik emateko. Erakundeko teknikariak, Udalarekin batera, herrian kultur ekipamendu egoia paratzeko aukerak aztertzen ari dira.

4.- Nafarroako Gobernuak dirulaguntzak ematen ditu kultur etxe berriak eraikitzeko deialdi publikorako ebazpenaren bidez, eta deialdi hori egiten denean nahi duten Udal guztiek izanen dute aurkezterik. Dena den, une honetan ezin da zehaztu zein izanen den 2001eko deialdiaren aurrekontua, zer udalek eskatuko duen laguntza, edota zeintzuk izanen diren eskaerak aztertzeko batzordeak ematen dituen proposamenak.

Hori guztia jakinarazi dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2000ko azaroaren 17an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

I saila:
PARLAMENTUKO JARDUERA

2001eko apirilean egindako bilerak

MAHAIA ETA ELEDUNEN BATZARRA

2, 9 eta 23an.

OSOKO BILKURA

5ean:

– Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko zenbait agindu indargabetzeko Foru Lege proiektua eztabaidatu eta bozkatzea.

– Erditze anizkoitzak izan dituzten familientzako laguntzari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea, hala erabakiz gero. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Pertsona zaharrak harteari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea, hala erabakiz gero. Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zubi-kreditua eman diezaien SINTELekeo langileei.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da internetera konektatutako ordenagailuak erosteko laguntza sistema ezar dezan.

– Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Gobernu zentrala premiatzen da 1997an enplegatu publikoen lansariak izoztu izana baliogabetzen duen epaia aplikatzeko neurriak har ditzan.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da minbiziaren aurkako ekintza plan bat aurkez dezan.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da toki entitateak finantzatzeko formula berriak bila ditzan.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Erdialdean berrindustrializazio-politika eraginkorra egin dezan.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Kontratuei buruzko Foru Legeak zenbait oinarrizko alderdi garatzeko ezarritako epeak bete ditzan.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legea alda dezan

26an:

– Farmazia laguntzari buruzko azaroaren 16ko 12/2000 Foru Legearen zenbait artikulua aldatzen dituen Foru Lege proiektua eztabaidatu eta bozkatzea.

– Bardeako tiro poligonoak egun hartzen dituen lurak babesteari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea, hala erabakiz gero. Rubio Salvia tierra andreak (Askotarikoa) aurkeztu du.

– Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduna arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea, hala erabakiz gero. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Jabeldura, irakaskuntza ez unibertsitarioan euskararen erabilera arautzen duen dekretuaren

zirriborroari buruzkoa. Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Jabeldura, Nafarroako Gobernuak Bardeako tiro poligonoaren etorkizuna dela-eta egin duen politikari buruzkoa. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, gobernu zentrala premiatzen da gardenagoa izan dadin zenbait materialen esportazioa dela-eta (material militar, polizial eta segurtasuneko).

– Errazti Esnal andreak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, gobernu zentrala premiatzen da arma arinen salerosketa kontrola dezan.

– Rubio Salvatierra andreak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere babesa ematen dio “Adio armei” izeneko kanpainari.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da emakumeen enplegua sustatzeko programa bat egin dezan.

– Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da telefonia mugikorreko antenen instalazioa arautu dezan.

– Rubio Salvatierra andreak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da neurriak har ditzan telefonia mugikorreko antenen instalazioari buruz.

**NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO
ERREPIDE HANDIEN ETORKIZUNA
–BEREZIKI A-15ARENA– AZTERTZEKO
BATZORDE BEREZIA**

3an:

– Ekonomia eta Ogasun kontseilari Francisco Iribarren Fentanes jaunaren eta Audenasako lehendakari Javier Caballero Martínez jaunaren agerraldia.

**BEHI-AZIENDAREN ENTZEFALOPATIA
ESPONGIFORMEAREN JARRAIPENA ETA
KONTROLA EGITEKO BATZORDE BEREZIA**

3an:

– Lan bilera, behi-aziendaren entzefalopatia espongiformeko adituekin.

4an:

– Osasun kontseilariaren eta Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren agerraldia.

24an:

– Lan bilera, Iruñerriko Mankomunitateko lehendakariaren agerraldia.

– Lan bilera, Erriberako Hondakin Solidoen Mankomunitateko lehendakariaren agerraldia.

27an:

– Lan bilera, behi-aziendaren entzefalopatia espongiformearen zentro nazionalaren lehendakari Juan José Badiola jaunaren agerraldia.

HERRILAN ETA AZPIEGITURA BATZORDEA

3an

– Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eskaturik, Itoizko urtegiaren balizko hondamendi-arriskuen gaineko azterlanak ikusirik, horren inguruko balorazioari eta egin beharreko jarduketari buruz informazioa eman dezan.

– Nafarroako Gobernuak Iruña-Jaka-Huesca autobidearen trazadura Irunberrin barna egin dezan premiatzen duen mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztu zuen.

**NAFARROAKO INMIGRAZIO POLITIKAREN
ILDOAK EZARTZEKO IRIZPIDE NAGUSIAK
AZTERTZEKO BATZORDE BEREZIA**

3an:

– Lan bilera, Nafarroako Unibertsitate Publiko-ko Gizarte Laneko Departamentuko zuzendari Concepción Corraera Oroz andreak agerraldia.

– Lan bilera, Sos Arrazakeria erakunde-ko ondoko ordezkariaren agerraldia: Maite Iriarte, Begoña Zabala, M^a Jesús Pérez Jarauta eta Cecilia Themme andreak.

24an:

– Lan bilera, UGT sindikatuko Gida Zentroko ordezkarien agerraldia.

– Lan bilera, ANAFE erakundeko ordezkarien agerraldia.

FORU ARAUBIDEKO BATZORDEA

4an:

– Nafarroako Gobernuko Lehendakariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak hala eskatuta, informazioa eman dezan bi lege proiektu hauei buruz: Aurrekontuen egonkortasunari buruzko Lege Orokor proiektua eta Aurrekontuen egonkortasunari buruzko Lege Orokorraren Lege Organiko Osagarriaren proiektua.

25ean:

– Lan bilera, Bardeako Batzarreko lehendakariak adieraz dezan nolakoa den Defentsa Ministerioarekin sinatuko den hitzarmena, eta zer eragin izanen duen tiro poligonoaren etorkizunean.

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEA

4an:

– Lan bilera, Nafarroako Turismo Eskolako ordezkariak eskolaren arazoan berri emango dute.

– Lan bilera, Ondare Historikoaren Batzordeko kideek arte garaikidearen zentroak izanen duen kokalekuaren berri emango dute.

10ean:

– Lan bilera, Auditorio eta Biltzar Jauregia sozietateko kudeatzaileak San Antongo bastioiko horma-bularrak bota izanari buruz informatuko du.

– Lan bilera, Iruñeko Udaleko Hirigintza Alorreko zuzendariak San Antongo bastioiko horma-bularrak bota izanari buruz informatuko du.

– Lan bilera, Iruñeko alkateak Gazteluko plazan azaldutako arkeologia-hondarrei buruz informatuko du.

– Lan bilera, Kultura zuzendari nagusiak San Antongo bastioiko horma-bularrak bota izanari buruz eta Gazteluko plazan azaldutako arkeologia-hondarrei buruz informatuko du.

10ean:

– Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren eta Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren agerraldia, Auditorio eta Biltzar Jau-

regiko obrei buruz eta San Antongo bastioiko horma-bularrak bota izanari buruz informa dezaten.

– Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren agerraldia, Gazteluko Plazan azaldu diren arkeologia-hondarrei buruz eta horrek lurpeko aparkaleku bat egiteko proiektuan duen eraginari buruz informa dezan.

11n:

– Altzuzako herriko Oteiza Fundazioaren museo-etxeko obrak ikusteko bisita.

25ean:

– Hezkuntza eta Kultura kontseilariak Atzerriko hizkuntzen irakaspena hobetzeko plana aurkeztuko du.

– Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eskatuta, maisu-maistren kidegoko 2001eko lan eskaintza publikoari buruz informa dezan.

LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO BATZORDEA

10ean:

– Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eskatuta, informazioa emateko VINSAn kudeatzailearen egoerari buruz.

– Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren agerraldia, sozietate publiko bateko kudeatzaile lanpostua bete ondotik bere departamentuko arduradun batek anonimoak bidali izanari buruz informatzeko.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Haren bitartez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Oihan Plana betearazteko neurriak har ditzan.

GIZARTE GAIETAKO BATZORDEA

11n:

– Lan bilera, arma arinak debekatzearen aldeko kanpainaren berri emanen dute giza eskubideen defentsan konprometituta dauden zenbait erakundetako ordezkariak.

**LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO
ETA BARNE BATZORDEA**

24 eta 27an:

– Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzu-ko langileen gaineko neurriei buruzko Foru Lege proiektua eta aurkezturiko zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea.

OSASUN BATZORDEA

27an:

– Tabakoari buruzko foru plana dela-eta, egini-ko proposamenak eztabaidatu eta bozkatzea.

**GAZTEENTZAKO POLITIKA OROKORRAK
AZTERTZEKO BATZORDE BEREZIA**

25ean:

– Lan bilera, “UGT Langile Gazteak” erakunde-ko ordezkarien agerraldia.

– Lan bilera, ADI erakundeko ordezkarien age-rraldia.

– Lan bilera, “Gurutze Gorria, Gazteria” era-kundeko ordezkarien agerraldia.

– Lan bilera, ANFAS erakundeko ordezkarien agerraldia.

**Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean 2001eko apirilean sartu diren doku-
mentuen zerrenda****2an:**

– Idazkia, Hezkuntza eta Kultura kontseilaria-rena. Horren bitartez, agerraldia egitea eskatu du, ikastetxeetako haur, lehen eta bigarren hezkun-
tzako ikasleen aurrematrikulazio prozesuari buruz informatzeko.

– Idazkia, Lizarrako Abokatuen Elkargoarena, Nafarroko abokatuen elkargoak direla eta.

– Idazkia, M. Mañas, S.L.arena. Horrekin bate-
ra, 48 ordenagailu eramangarri erosteko eskain-
tza.

– Idazkia, AIMSarena. Horrekin batera, 48
ordenagailu eramangarri erosteko eskaintza.

– Foru Lege proposamena, saltoki handien
gaineko zerga bat sortzeari buruzkoa. Nafarroako
Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak
aurkeztu du.

– Foru Lege proposamena, Lurraldearen Anto-
lamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko
10/1994 Foru Legearen 273. artikulua aldatzeari
buruzkoa. Nafarroako Demokraten Elkargunea
Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

3an:

– Idazkia, Net Point enpresarena. Horrekin
batera, 48 ordenagailu eramangarri erosteko
eskaintza.

– Idazkia, Félix Zapatero eskola publikoko
Gurasoen Elkartearena. Horren bitartez, bat egin

dute Tuteran unibertsitate mailako ikasketak ezar-
tzeko aukerari buruzko txosteneko ondorioekin.

– Idazkia, Arga informatikarena. Horrekin bate-
ra, 48 ordenagailu eramangarri erosteko eskain-
tza.

– Zuzenketa, Euskal Herritarrok Parlamentuko
Taldeak aurkeztua. Nafarroako Gobernua premia-
tzen da internetera konektatutako ordenagailuak
erosteko laguntza sistema ezar dezan.

– Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua
premiatzen da Isu eta Luzaideko errepideetan
hobekuntza lanak egin ditzan. Euskal Herritarrok
Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Idazkia, Euskal Herritarrok Parlamentuko
Taldearena. Horren bitartez, informazioa eskatu
dute Administrazio publikoetan euskararen erabi-
lera arautzen duen 135/1994 Foru Dekretua apli-
katzera udalek duten eskumen mailari buruz
egindako txosten juridikoa dela eta.

– Idazkia, Unión del Pueblo Navarro Parla-
mentuko Taldearena. Horren bitartez, informazioa
eskatu dute Cabanillasko Udalari Tausteko ubide-
an obrak egin ditzan emandako laguntzen espe-
dienteari buruz.

– Mozioa. Horren bidez, Gorte Nagusiak eta
Estatuko Gobernua premiitzen dira hauteskuden-
en gaineko legeria aldatzera, gizonen eta emaku-
meek hautagai eta hautetsi izateko aukera berdi-
nak izan ditzaten. Nafarroako Demokraten
Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Foru Lege proposamena, 2002tik 2004ra bitarteko aurrekontualdietan Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoa zenbatekoa izanen den eta nola banatuko den ezartzeari buruzkoa. Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzeari buruzkoa. Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, itunpeko irakasleen lansariak hobetzeari buruzkoa.

4an:

– Mozioa. Horren bidez, Ebroko Konfederazio Hidrografikoa, Nafarroako Gobernu eta Itoizko Koordinakundea premiatzen dira lanerako mahai bat era dezaten txosten berri bat eskatzeko Itoizko balizko hondamendi-arriskuei buruz. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, Nafarroako errepideetako tunelen egoerari buruz foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak eskatutako informazioa.

– Galdera, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak egina, Nafarroako Gobernuaren eraikinetan segurtasun eta zainketa zerbitzuak emateari buruzkoa.

– Galdera, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak egina, Nafarroako Gobernuako kideek zenbait kontzeptu direla-eta jasotako diruari buruzkoa.

– Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernu premiatzen da neurriak har ditzan telefonia mugikorreko antenak jartzearen inguruan. Rubio Salvierra andreak (Askotarikoa) aurkeztu du.

– Idazkia, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearena. Horren bitartez, drogamenpekotasunak ukitutako familien elkartearekin lan bilera egiteko eskatu dute, elkarteak bere arazoen berri eman dezan.

– Idazkia, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearena. Horren bitartez, Nafarroako Fibromialgiaren Elkartearekin lan bilera egiteko eskatu dute, egiten duen lanaren berri eman dezan.

5ean:

– Idazkia, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearena. Horren bitartez,

Azagrako Udalari buruzko fiskalizazio txostena –1999 eta 2000. urteetako– egin dezan eskatu dio Kontuen Ganbarari.

– Galdera, herrigunetan dauden azienda-ustia-tegiei buruzkoa. Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztu du.

– Idazkia, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztua. Horren bidez, informazioa eskatu du, berriz ere, erabiltzaile eta ureztatzaileentzat Nafarroako Ubideko hektarea bakoitzeko kostua zein izanen den jakiteko.

– Idazkia, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztua. Horren bidez, Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren agerraldia eskatu du Gobernuak zerga-politikari buruz darabilen estrategia azal dezan.

– Mozioa, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernu premiatzen da Itoizko urtegia betetzeko aurreikusitako lana geldiaraz dezan.

– Galdera, VINSako zuzendari kudeatzailearen lanpostua betetzeko hautapen prozesuari buruzkoa. Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Galdera, Foruzaingoak Korrika dela-eta bide-segurtasuna zaintzen ez aritzeari buruzkoa. Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

6an:

– Jabeldura, Nafarroako Gobernuak Bardeako tiro poligonoaren etorkizuna dela-eta egin duen politikari buruzkoa. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Idazkia, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearena. Horren bidez, Bardeako Batzarreko lehendakariaren agerraldia eskatu du, Defentsa Ministerioarekin egiten duen akordioaren eta horrek tiro poligonoaren etorkizunean izanen duen eraginaren berri eman dezan.

– Idazkia, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldearena. Horren bitartez, Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren agerraldia eskatu du, Zitudadelan arte garaikidearen zentroa kokatzeari buruz aritzeko.

– Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernu premiatzen da Tuteran, Ebro gainean, beste zubi bat egiteko azterlan bat presta dezan.

– Diputatuen Kongresuko idazkia. Horren bidez, jakinarazten da Osoko Bilkurak ez zuela

aintzat hartu Bikote egonkorren berdintasun juridikoari buruzko Lege proposamena.

– Gestión de Servicios Integrales enpresak igorritako faxa. Horren bidez, igortzen du posta bulegoan "Kontabilitate publikorako eta inbentarioaren kudeaketarako sistema informatiko bat erosteko kontratazioari" dagozkion agiriak aurkeztu izanaren ziurtagiria.

– Ibermática, SA enpresaren idazkia. Horren bidez, "Kontabilitate publikorako eta inbentarioaren kudeaketarako sistema informatiko bat erosteko kontratazioarako" eskaintza igorri du.

– Tecnicos en Automatizació d'Oficines, SA enpresaren idazkia. Horren bidez, "Kontabilitate publikorako eta inbentarioaren kudeaketarako sistema informatiko bat erosteko kontratazioarako" eskaintza igorri du.

– Foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunaren idazkia. Horren bidez, erretiratu egin du Ebroko Konfederazio Hidrografikoari apirilaren 5ean eginiko informazio eskaera.

– Foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunaren idazkia. Horren bidez, Nafarroako Ubidearen bidez lortutako uraren kostuari buruzko informazioa eskatzen dio Ebroko Konfederazio Hidrografikoari.

– Nafarroako Rural Kutxaren idazkia. Horren bidez, "Kontabilitate publikorako eta inbentarioaren kudeaketarako sistema informatiko bat erosteko kontratazioarako" eskaintza igorri du.

– Galdera, Getze-Galarrera doan errepideari buruzkoa. Taberna Monzón jaunak (IUN-NEB) aurkeztu du.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak igortzen du 2001-2005erako etxebizitza planari buruzko erabakia-
ren ziurtagiria.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak igortzen du Behi-aziendaren Entzefalopatia Espongiformearen Jarraipena eta Kontrola egiteko Batzorde Bereziak eskatutako informazioa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak igortzen du foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak arrantza-elkarteen kudeaketari buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Nafarroako Gobernuak igortzen du foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak

arrantza-elkarteen kudeaketari buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Nafarroako Gobernuak igortzen du Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak Altsasuko tren geltokiaren egoerari buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Nafarroako Gobernuak igortzen du foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Itoizko urtegia betetzeak kaltetzen dituen herriek izanzen dituzten errepidezko komunikazioei buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Nafarroako Gobernuak igortzen du foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak osasun kontseiluen bilerei buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Nafarroako Gobernuak igortzen du Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak eskatutako informazioa Nafarroako Gobernuak kontseilariei 2000. urtean zehar egotz dakiekeen diru kopuruei buruz.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Nafarroako Gobernuak igortzen du Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak eskatutako informazioa 2001-2002 ikasturterako aurrematrikulazio datu guztiei buruz.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak eskatutako informazioa gradu ertaineko osasun hezitzaile lanpostuak betetzeko beharrezko profila definitzen duten txosten juridikoei buruz.

– Mozioa. Horren bidez, gobernu zentrala pre-
miatzen da enplegua gehitzeko eta haren kalitatea hobetzeko Lan merkatuaren erreformarako presako neurriei buruzko 5/2001 Errege Lege-Dekretua erretira dezan. Foru parlamentari Rubio Salvatierra andreak aurkeztu du.

– Idazkia, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldearena. Horren bidez, eskatzen da lan bilera bat egitea Ziordiko Udaleko ordezkariekin informazioa eman dezaten sinatu zuen hitzarmena, lurrazpiko pasabidea egiteari buruzko hitzarmena hain zuzen, bete ez izanari buruz.

– Idazkia, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldearena. Horren bidez, berretsi egiten da SOS-Arrazakeria agertzeko eskaera.

9an:

– Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du ez datorrela bat gobernu zentralak konstituziokontrakotasuneko errekurtsioa jarri izanarekin Bardeako Natur Parkea handitzearen aurka. Rubio Salvatierra andreak (Askotari-koa) aurkeztu du.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak eguzki energia sustatzeari buruz egini-ko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak igortzen du foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak eguzki-panel termikoak eta panel fotovoltaikoak jartzen laguntzeko dagoen araudiari buruz egini-ko galderaren erantzuna.

– Fontellasko Udalaren idazkia. Horrekin batera, Nafarroako Erriberan unibertsitate ikasketak jartzeari buruz Osoko Bilkurak onetsitako erabakia.

10ean:

– Foru Lege proposamena, etxeko indarkeriari eta bikote-kideen arteko indarkeriari aurrea hartzeko neurriei buruzkoa. Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako Turismo Eskolarekin hitzarmen bat sina dezan. Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da nekazaritzari buruzko foru lege bat egin dezan, jatorriko deiturak indartu ditzan bai eta segurtasun kontrolak areagotu ere nekazaritzako eta abeltzaintzako produktuetan. Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Galdera, parke teknologikoa deritzanak azkenean izanen duen kokalekuari buruzkoa. Burguete Torres jaunak aurkeztu du.

– Idazkia, Tafallako Udalarena. Horrekin batera, A-15 autobideari buruz Osoko Bilkurak onetsitako erabakia.

– Tuterako Udalaren idazkia. Horrekin batera, Nafarroako Erriberan unibertsitate ikasketak jartzeari buruz Osoko Bilkurak onetsitako erabakia.

– Castejónko Udalaren idazkia. Horrekin batera, Nafarroako Erriberan unibertsitate ikasketak jartzeari buruz Osoko Bilkurak onetsitako erabakia.

– Idazkia, Aierdi Fernández de Barrena jaunarena. Horren bidez, Abelbideen Lagunak elkarteko ordezkarien agerraldia eskatu du, adieraz dezaten zer egiten duten.

– Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza eta Kultura Departamentua premiatzen da Mendillorri IV ikasketxe publikoan haur hezkuntzako lehen mailako beste gela bat ireki dezan. Errazti Esnal andreak aurkeztu du.

– Idazkia, Félix Taberna Monzón jaunarena. Horren bidez, informazioa eskatzen du zenbait enpresen gaineko zerga espedientei buruz.

– Galdera, 2001-2002 ikasturteko aurrematrikulazio datuei buruzkoa. Errazti Esnal andreak aurkeztu du.

– Idazkia, Nafarroako Kontseiluarena. Horren bidez, jakinarazten du jaso duela Teresatarrak-Ezpeleta Jauregiaren egokitasunari buruzko txostena egiteko eskaera.

11n:

– Valtierra Udalaren idazkia. Horrekin batera, Nafarroako Erriberan unibertsitate ikasketak jartzeari buruz Osoko Bilkurak onetsitako erabakia.

– Errekurtsioa, Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldeak Eledunen Batzarraren aurrean jarria. Horren bidez, aurkatzen da Parlamentuko Mahaiak Castejónen ikasleen hezkuntza-zerbitzua mantentzeari buruzko Foru Lege proposamena modu arruntean izapidatzeko erabakia.

– Idazkia, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren agerraldia eskatzen du, informazioa eman dezan Gas Navarrak Errioxako El Sequero (Arrúbal) industrialdean kogenerazio elektrikoko zentral bat egiteari buruz.

– Idazkia, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Tuteratik Milagrora arteko saihezbidea ikus-terko bisita egitea proposatzen dute.

– Euskal Herria baketzeko eta Euskal Herrian diren gatazkak konpontzeko erabaki proposamena. Foru parlamentari Rubio Salvatierra andreak aurkeztu du.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak Bianako Printzea erakundeak 1991tik hona egini-ko zaharberitze eta zaintze lanei buruz eskatutako informazioa.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatu zuen Nafarroako liburutegi baliabideak antolatzeke irakurketa publikoko mapa bat aurkeztera, eta, hori dela-eta, horri dagokion agiria igorri du.

– Kontuen Ganbarako lehendakariaren ebazpena. Horren bidez, Kontuen Ganbarako Antolamendu Erregelamenduan artikulua berri bat sartu da.

– Galdera, RTVE ente publikoko Kontseilu Aholku-emaileak salatutako egoerari buruzkoa. Taberna Monzón jaunak aurkeztu du.

– Idazkia, Sigma Dos, SA enpresarena. Horrekin batera, Foru Komunitatean inkesta orokor bat egiteko eskaintza.

17an:

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, Pertsona Adindunen Nafarroako II. Biltzarren ondorioak.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horren bidez, adierazten du ez dagoela ados Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduna arautu eta Nafarroako ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartu izanarekin.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak "Andosilla II" lurzati berrantolamenduari buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak Bideko Ama Birjina Ospitaleko pediatria onkologikoari buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Audenasako langileei buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak 2001-2005rako Osasun Planari buruz eskatutako informazioa.

– Idazkia, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrenarena. Horren bidez, lan bilera bat egitea eskatu du zenbait talderekin, 2001-2004rako Etxebizitza Planaren gaineko informazioa eman dezaten.

– Idazkia, Nafarroako Unibertsitate Publikoarena. Horrekin batera, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak pikillo pipe-ri buruz eskatu zuen informazioa.

18an:

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Nafarroan arte garaikidearen zentroa sustatzeko konpromisoari buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Amaia Rodríguez Zalduarena. Horrekin batera, itzultzaileen oposizio-lehiaketarako aurkeztutako agiriak osatu ditu, epaimahaiak horrela eskatuta.

– Galdera, foru parlamentari Elena Torres Miranda andrearena, sendagaiak ordaintzeko modua aldatzeko aukerari buruzkoa.

19an:

– Idazkia, Telcyl enpresarena. Horren bidez, Foru Komunitatean inkesta orokor bat egiteko eskaintza igortzen du.

– Idazkia, CIES, SL enpresarena. Horrekin batera, Foru Komunitatean inkesta orokor bat egiteko eskaintza.

– Idazkia, Append, Investigación de Mercados, SL, enpresarena. Horrekin batera, Foru Komunitatean inkesta orokor bat egiteko eskaintza.

– Idazkia, Luis Sarriés Sanz (NUP), jaunarena. Horrekin batera, Foru Komunitatean inkesta orokor bat egiteko eskaintza.

– Ikertalderen faxa. Horren bidez, jakinarazten du posta bidez igorri duela Foru Komunitatean inkesta orokor bat egiteko eskaintza.

– Idazkia, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldearena. Horren bitartez, drogamenpekotasunak ukitutako familien elkartearekin lan bilera egiteko eskatu dute, elkarteak arazo horien berri eman dezan.

– Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du ez datorrela bat Estatuko gobernuak Nafarroako Foru Komunitateko funtzionarioek 1997an izaniko soldata igoeraren aurka errekurtsua jarri izanarekin. Nafarroako Demokratikoen Elkarguneak aurkeztu du.

– Idazkia, Industria kontseilariarena. Horren bidez, eskatzen du Parlamentuan agertzea bastioiko obrei buruzko informazioa emateko.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak eta José Manuel Goikoetxea Askorbe jaunak funtzionarioen eskubide pasiboei buruzko foru lege proiektua dela-eta egungo heriotza tasen arabera eguneratze azterlanaren gaineko informazioa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, lan eskaintza publikoetan pertsona minusbaliatuentzako lanpostuak gordetzeari buruz foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Arguedasen parke tematiko bat egiteko aukerari buruz foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, martxoan sartu ziren eta aurrekontu aldaketak baimentzen dituzten zenbait jakinarazpen eta ebazpena.

– Idazkia, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldearena. Horren bitartez, Industria kontseilariaren agerraldia eskatu du, Erriberri eta inguruetarako enpresa proiektuak bilatzeko egin diren lanei buruz informazioa eman dezan.

– Galdera, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak zaharrentzako oporraldi programetan lekuak gordetzeari buruzkoa. Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

20an:

– Foru Lege proposamena. Horren bidez ezarzen da 2002tik 2004ra bitarteko aurrekontualdian toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoa zenbatekoa izanen den eta nola banatuko den. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du ondare historiko-artistikoa osatzen duten ondasunak errespetatu eta babestu egin behar direla. Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Idazkia, Nafarroako Demokratien Elkargunearena. Horren bitartez, Iratxe kontsumitzaileen elkartearekin lan bilera egiteko eskatu du, Nafarroan etxebizitza arloan dagoen arazoari buruz zer ikuspegi duten azal dezaten.

– Galdera, heroina modu kontrolatuan emateko plan bat abian jartzeari buruzkoa. Foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak aurkeztu du.

– Idazkia, Josu Arraiz Muñozena. Horrekin batera, itzultzaileen oposizio-lehiaketarako aurkeztutako agiriak zuzendu ditu, epaimahaiak horrela eskatuta.

– Idazkia, Ikertalde enpresarena. Horrekin batera, Foru Komunitatean inkesta orokor bat egiteko eskaintza.

– Idazkia, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldearena. Horrekin batera, Bianako Printzea erakundeak eginiko zaharberritze eta zaintze obrei buruzko informazio eskaera.

23an:

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horren bidez, adierazten da Herrilan kontseilaria prest dagoela Herrilan Batzordeko kideekin batera joateko Tuterako saihebidetako obrak ikustera, bai eta egiten ari den beste edozein obra ere.

– Foru Lege proposamena, Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legea aldatzekoa. Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Idazkia, Nafarroako Demokratien Elkargunearena. Horren bidez eskatzen du Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena erretiratzea.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, Erregioetako Komitearen 38. Osoko Bilkurari buruzko informazioa.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak A-68ko Lodosako sarbideari buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldearena. Horrekin batera, Bianako Printzea erakundeak eginiko zaharberritze eta zaintze obretan arkeologia taldeen laguntzarik izanari buruzko informazio eskaera.

– Idazkia, M^a Josefa Artano Galarragarena. Horren bidez, udal ordenantzen argitaratzea dela eta gertaturikoak salatzen ditu.

– Adierazpen proposamena, Turkiako espetxetako egoera larriari buruzkoa. Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

24an:

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak telefonia mugikorreko antenen instalazioari buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak Vinsako kudeatzaile lanpostua betetzeari buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak NUPeko Bioteknologia eta Natur Baliabideen zentroan aplikatutako segurtasun sistemei buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak Biodibertsitatearen Foru Batzordeak eginiko kontrolez eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak Urbasako Parkeko zuzendari karguaren izendapenari buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Ebazpena, Kultura zuzendari nagusiarena. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuari eman zaio baimena entzutegia zeneko obrak egitean agertutako harresiak desmuntatzeko.

– Zuzenketak, Nafarroan merkataritza arautzen duen Foru Lege proposamenari Euskal Herriarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztuak.

25ean:

– Idazkia, "Dos de mayo" ikastetxe publikoko gurasoen elkartearena. Horrekin batera, Batzarrak Nafarroako Erriberan unibertsitate ikasketak jarzteari buruz Osoko Bilkurak onetsitako erabakia.

– Zuzenketak, Nafarroan merkataritza arautzen duen Foru Lege proposamenari Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztuak.

– Zuzenketa, telefonia mugikorreko antenen instalazioari buruzko mozioari aurkeztua. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Idazkia, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunarena. Horren bidez, informazioa eskatzen du Vinsako kudeatzaileari buruz.

– Galdera, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina, VINSako plantilla berregituratzeari buruzkoa.

– Zuzenketak, Nafarroan merkataritza arautzen duen Foru Lege proposamenari foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztuak.

– Zuzenketak, Nafarroako polizia kidegoei buruzko otsailaren 13ko 1/1987 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamenari Izquierda Unida

de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztuak.

– Foru Lege proposamena, gaixoaren zenbait eskubide, hain zuzen ere informazioa eta agiri klinikoak eskuratzekoa eta biziaren gaineko testamentua egitekoa, arautzen dituena. Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Zuzenketa, telefonia mugikorreko antenen instalazioari buruzko mozioari aurkeztua. Foru parlamentari José Manuel Goikoetxea Askorbe jaunak aurkeztu du.

– Iruña-Logroño autobia eraikitzeari buruzko Foru Lege proiektua, Nafarroako Gobernuak igorria.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horren bidez, adierazten du ez dagoela ados Nafarroako Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearen 273. artikulua aldatzeari buruzko Foru Lege proposamena dela-eta.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, Tasei buruzko Foru Legea argitaratzean eman diren akatsak zuzentzeko proposamena.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak pertsona gorrentzako gizarte-laguntza arloan eginiko ekintzei buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, foru parlamentari Taberna Monzón jaunak Gabarderalen igerileku bat eraikitzeke dirulaguntzari buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Zuzenketa, emakumeen enplegua sustatzeko programa bat egiteari buruzko mozioari Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa.

– Zuzenketak, Nafarroan merkataritza arautzen duen Foru Lege proposamenari Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztuak.

– Idazkia, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldearena. Horren bitartez, Martzi-llako Gazteluaren Adiskideak elkarteko ordezkarietan lan bilera egiteko eskatu dute, azal dezaten zer iritzi duten gazteluaren etorkizunaren gaineko zenbait konturi buruz.

– Idazkia, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldearena. Horren bidez, adierazten dute zein zuzenketei eutsiko dien Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen gai-

neko neurriei buruzko Foru Lege proiektuaren irizpenaren ondoren.

– Idazkia, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldearena. Horren bitartez, arte garaikidearen zentroa Zitudadelan jartzeari buruz Hezkuntza eta Kultura Departamentuak eginiko txostenei buruzko informazioa eskatzen du.

– Idazkia, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldearena. Horren bidez, informazioa eskatzen dio Audenasari kontratu blindatu eta goi karguen kaleratzeari buruz.

– Idazkia, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunarena. Horren bitartez, Aralar Elkarteko ordezkariekin lan bilera egiteko eskatu dute, azal dezaten zergatik gertatu den Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuarekin sinatutako hitzarmenaren deuseztea.

– Galdera, haragi-irinak erretzeko Portland enpresarekin hitzarmenik ba al dagoen jakitekoa. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Galdera, haragi-irinak erretzeko Portland enpresarekin hitzarmen bat egitearen helburuei buruzkoa. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Galdera, haragi-hirinak erretzeko Portland enpresarekin hitzarmen bat egitearen egokitasunari buruzkoa. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Galdera, hondakin arriskutsuak erretzeko beharrezko azpiegiturei buruzkoa. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Galdera, Portland enpresa hondakin arriskutsuak erretzeko prest dagoenean, jada hondakin guztiak erreta egoteko aukerari buruzkoa. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Galdera, hondakin arriskutsuak jatorri dituzten irinak erretzeak eragindako gastuen finantziazioari buruzkoa. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

26an:

– Galdera, erreserben zentralaren egoerari buruzkoa. Foru parlamentari Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztu du.

– Galdera, Turismo Partzuergoentzako neurriak hartzeari buruzkoa. Foru parlamentari Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztu du.

– Galdera, Nafarroako ardoen sustapenari buruzkoa. Foru parlamentari Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztu du.

– Galdera, gainerako autonomia erkidegoetan Kohesio Funtsaren bidez biztanleko eginiko inbertsioei buruzkoa. Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztu du.

– Galdera, Renfek Nafarroako trenbide sarean eginikoei buruzkoa. Foru parlamentari Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztu du.

– Idazkia, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldearena. Horren bidez, proposamena aurkeztu du Gazteen-tzako Politika Orokorrak Aztertze Batzorde Bereziaren agerraldi egutegia luzatzeko.

– Idazkia, Lehendakaritza Ministerioarena. Horren bidez, jakinarazten du jaso duela enplegatu publikoen lansariak izoztu izana baliogabetzen duen epaia aplikatzeko neurriak hartzera premia-tzen duen erabakia.

– Idazkia, Lehendakaritza Ministerioarena. Horren bidez, jakinarazten du jaso duela Errege Bardeako tiro poligonoaren erabilera bukatutzat ematera premia-tzen duen erabakia.

– Idazkia, Europako Erregioetako Zentroarena. Horrekin batera, informazioa, Europar Batasuneko Kontseiluko lehendakaritza 2002. urtean Espainiaren esku egonen dela-eta, horri buruzko jardunaldi informatiboen gainekoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak igortzen du foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak Ergako tunelaren arazoei buruz eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearena. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko lehendakariaren agerraldia eskatu du, nazioarteko moteltze ekonomikoaren ondoriei dagokienez zer aurreikuspen dauden azal dezan.

– Idazkia, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearena. Horren bidez, Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren agerraldia eskatu du, Gobernuaren jarrera azal dezan Nazioko Gobernuak hezkuntza arloko oinarriko legedian iragari dituen aldaketak direla-eta.

– Galdera, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak kontratatutako obra eta zerbitzuei buruzkoa. Jorge Mori Igoa jaunak aurkeztu du.

– Galdera, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak kontratatutako obra eta zerbitzuei buruzkoa. Jorge Mori Igoa jaunak aurkeztu du.

– Galdera, Osasun Departamentuak kontratatutako obra eta zerbitzuei buruzkoa. Jorge Mori Igoa jaunak aurkeztu du.

– Galdera, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak kontratatutako obra eta zerbitzuei buruzkoa. Jorge Mori Igoa jaunak aurkeztu du.

– Galdera, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak kontratatutako obra eta zerbitzuei buruzkoa. Jorge Mori Igoa jaunak aurkeztu du.

– Galdera, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak kontratatutako obra eta zerbitzuei buruzkoa. Jorge Mori Igoa jaunak aurkeztu du.

– Galdera, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak kontratatutako obra eta zerbitzuei buruzkoa. Jorge Mori Igoa jaunak aurkeztu du.

– Galdera, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak kontratatutako obra eta zerbitzuei buruzkoa. Jorge Mori Igoa jaunak aurkeztu du.

– Galdera, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak kontratatutako obra eta zerbitzuei buruzkoa. Jorge Mori Igoa jaunak aurkeztu du.

27an:

– Idazkia, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldearena. Horren bidez, eskatzen da ezen Osoko Bilkurak onets dezala bertan behera gelditzea Nafarroako Kontseiluari buruzko Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena, Osoko Bilkurak 2001eko otsailaren 8an aintzat hartua, gai berari buruzko beste foru lege proposamen bat aurkeztu baita.

– Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da kontuan izan ditzan zenbait irizpide farmazia-eskaerak ebazterakoan. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, foru parlamentari Félix Taberna Monzón jaunak kontratu blindatuen formula deritzanari buruz eginiko galderaren erantzuna.

– 9/2000 Foru Dekretua, urtarrilaren 10ekoa, Zerga bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena. Nafarroako Gobernuak igorri du.

30ean:

– Galdera, Cetenasa enpresa publikoari buruzkoa. Foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak aurkeztu du.

– Galdera, Erriberrin telebista kateak ongi ikus-teko arazoei buruzkoa. Foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak aurkeztu du.

– Idazkia, Nafarroako Demokraten Elkargunea-arena. Horren bitartez, Nafarroako adimen handiko pertsonak eta talentudunak biltzen dituen elkarteko (ANAST) ordezkariekin lan bilera egiteko eskatu du.

– Idazkia, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldearena. Horren bidez adierazten du bi zuzenketei eutsiko diela Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen gaineko neurriei buruzko Foru Lege proiektuaren irizpenaren ondoren.

– Boto partikularra, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldearena, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen gaineko neurriei buruzko Foru Lege proiektua dela eta.

– Idazkia, Félix Taberna Monzón jaunarena. Horren bidez, informazioa eskatzen du Nasuinsak Tuterako zenbait enpresarendako kudeatzen dituen laguntzei buruz.

– Galdera, Nafarroako autobideko aparkalekuetan kamioiak aparkatzeari buruzkoa. Foru parlamentari Félix Taberna Monzón jaunak aurkeztu du.

– Galdera, Tuterako Irakasleentzako Laguntza Zentroan jardunaldi batzuk debekatzeari buruzkoa. Foru parlamentari Félix Taberna Monzón jaunak aurkeztu du.

– Mozioa, 2001-04-26ko Osoko Bilkuran aurkeztutako jabelduraren ondoriozkoa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio neurriak har ditzan Nafarroa Garaia osoan ikasketa guztiak euskaraz egin ahal izatea bermatzeko. Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Galdera, Itoitzekiko elkartasun taldeko solidarioen gaineko informazioa jasotzeko zerbitzu berezi bat sortzeari buruzkoa. Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonia *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.300 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--